

PAACE, Afrika eta Ermuaren alde lanean

Ermuan bizi den senegaldar talde batek 2014an sortutako elkarte da PAACE (Afrikan nekazaritza sustatu eta energia sortzeko elkarte). Nahiz eta senegaldarrek sortu, Afrika osoari begira lan egiteko asmoa dauka elkarteak, baina ez hori bakarrik, gure herriari asko eskaini diezaiekeela uste dute.

Falilou Diop da PAACE-ko idazkaria. Senegaldarra da Diop eta hiru urte daramatza Ermuan bizitzen. Bere aberriko kideak bezala, oso gustura sentitzen da bertan. "Horregatik gaude hemen". Ermuan 80 bat senegaldar bizi dira eta Diopek duen informazioaren arabera, zifra gorantz da. "Jendeak bere ongizatea aurkituko duen toki horretara jotzen du eta bertan ondo sentitzen badira, han geratuko dira", dio. Bera, adibidez, beste toki batzuetan bizi izan da Ermura heldu aurretik, "baina herri honek zer-bait berezia dauka. Oso toki abegitsua da. Herritarrak ire-

kiak dira eta oso pertsona onak".

Diop bezala, Ermuan bizi diren senegaldarrek herriko bizitza komunean parte hartu nahi dute. Bere iritziz, horrek hainbat gauza lortzeko asko lagunduko die. "Adibidez, gure integrazioa eta Ermuko biztanleria sentibilizatzea. Gu bizitzera gatz hona, aukera baten bila, baina eskaintzeko asko daukagula erakutsi nahi dugu. Ez gatz jasotzera bakarrik, baita ematera ere". Horregatik sortu zuten PAACE, Ermua eta Afrikan eragiteko. Gainera, euren ateak edonorentzat zabalik daudela argitzen du Diopek,

"berdin da nongoak diren".

Ermuan interkulturaltasunaren inguruan dabilta batez ere lanean, "hemen dauden senegaldarrak eta, orokorrean, afrikarrak, herrian integratu daitezten". Zentzu horretan, uztailean I. Jardunaldi Interkulturala antolatu zuten. Bertan, Afrikari buruzko argazki erakusketa bat egin zen eta honen bitartez Afrikaren beste aurpegi bat erakusten saiatu zen PAACE. "Afrikari buruz berba egiten denean beti gerrak, pobrezia... datorkigu burura, eta guk beste errealitate bat erakutsi nahi izan genuen". Gero, 'Afrikaren deia' izeneko hitzaldia eskaini zuen han lanean diharduen Alboan GKE-ko eta unibertsitateko irakasle den Mateo Agirre jesuitak. "Oso interesgarria izan zen, Afrikan aditua delako", Diopen ustetan. Afrika eta Ermuko emakumeen arteko topaketa ere egin zen eta ondoren jaki senegaldarrak dastatzeko aukera egon zen herri bazkarian. Santixauetako programaren barruan, bestetik, kontzertua ere eskaini zuten senegaldarrek. "Oso pozik gaude guzti honekin eta eskerrak eman nahi dizkiogu Ermuko herriari guztiagatik", azaltzen du Diopek.

Euren asmoen artean Ermuan tailerrak, topaketak... egitea dago. Adibidez, Afrikako perkusioan (Djembé) hasteko tailerra egingo da Alboka musika eskolan urritik aurrera. 16 urtetik beherakoentzat ostiraletan 17:00etatik 18:30etara izango dira klaseak, eta 16 urtetik gorakoentzat astearteetan 15:30etatik 17:00etara (Izena emateko PAACE-ra deitu, 632 157 330).

Eskola-ortua Senegalen

Ermuan ekin arren, Afrikara ere begira dago PAACE. "Ikusi dugu han kapitalismo eta multinazionalen eraginaren ondorioz, nekazari txikiei euren lurrrak nola kendu dizkieten, eta arrantzarako nazioarteko akordioek ere, hango arrantzele tradizionalei euren jarduna egitea mugatzen dieten". Badakite zaila dela eurek arazo horiek konpontzea. "Baina gure eskuetan dagoena egingo dugu", azpimarratzen du. Ermuko Udalaren laguntzarekin, adibidez, eskola-ortu bat egingo dute aurten Dagana herrian, Senegal iparraldean dagoen San Louis eskualdean. Jaso eta eman, argi dauka hori PAACE-k.

Ekhi Velaz

Falilou Diop, PAACE-ko idazkaria



MUGA **KIRIOLAK**

San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

OINAK **LEIRE MAYORA**
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

ZK

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

ZUZENBIDE KONTUAK

Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com